BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

C.N.M.V. REGISTROS OFICIALES
CONTRATOS - TIPO
Fecha de Registro
30-7-96
Nº Doc: 150

# Condiciones generales del contrato de Cuenta Valor
# ( Depósito y administración de Valores )

## IDENTIFICACIÓN DE LA ENTIDAD

Denominación: BILBAO BIZKAIA KUTXA, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea C.I.F. G48412720

Incrita en el Registro Mercantil de Bilbao, Tomo BI-1, Folio 112, Hoja nº BI-9A. Inscripción 1ª

Domicilio Social: Gran Vía, 30-32 - Bilbao

Código de entidad en el Banco de España: 2095

Mercados Secundarios de Valores de los que es miembro:

- Mercado A.I.A.F.

- Mercado de Deuda Pública en Anotaciones (Entidad Gestora de capacidad plena)

Personas de Contacto: Fernando Simón. Tno. (94) 4877528
Javier García Lurueña. Tno. (94) 4877580

# CONDICIONES GENERALES DEL CONTRATO DE CUENTA VALOR

**1) NATURALEZA Y OBJETO DE LA CUENTA VALOR. OBLIGACIONES ASUMIDAS POR BILBAO BIZKAIA KUTXA.**

Por este contrato el cliente abre una "Cuenta Valor" en la que podrá incorporar valores mobiliarios tanto representados en "títulos" como por el sistema de "anotaciones en cuenta".

BBK asumirá respecto a los primeros la función de Depositario en Custodia, si bien se tratará de un depósito cualitativo cuando, de conformidad con el sistema de liquidación y compensación de valores cotizables, sea factible la fungibilidad de los títulos.

BBK asumirá, para todos los valores incorporados, la labor de administración y vigilancia en orden a efectuar los cobros de los cupones, dividendos, derechos, intereses y amortizaciones que correspondan a los mismos.

BBK informará mediante la remisión de extractos, de los movimientos y situación de la cuenta valor, entendiéndose que la última comunicación anula las anteriores. Dichos extractos serán remitidos cada vez que se efectúe un movimiento que altere la situación de la cuenta valor y, en cualquier caso, con periodicidad anual.

BBK remitirá, asimismo, informaciones sobre amortizaciones, canjes, suscripciones, dividendos, juntas de accionistas, situaciones especiales que se consideren de interés, etc, así como aquellas otras informaciones que considere oportunas, y a las que razonablemente tenga acceso, relativas a los títulos depositados o a otros que pudieran incorporarse a la cartera del cliente.

BBK remitirá los extractos e información citadas por los cauces habituales de correspondencia, facilitando asimismo a los clientes que así lo contraten, otros medios que posibilitan al cliente el acceso a dichas informaciones tales como Telekutxa, Cajacash u otros que, en el futuro, puedan habilitarse. El cliente deberá vigilar también aquellos acontecimientos relativos a sus títulos que pudieran afectarle. Por su parte, BBK asume el compromiso de atender la información que le sea requerida y que esté a su disposición relacionada con su cuenta valor y con los títulos en ella comprendidos.

BBK se compromete a desempeñar su labor con la diligencia profesional que le es razonablemente exigible, quedando exenta de responsabilidad por aquellos incumplimientos derivados de supuestos de fuerza mayor o caso fortuito.

**2) OBLIGACIONES DEL TITULAR**

El Titular, y en su caso el usufructuario, o sus administradores, se obligan a poner inmediatamente en conocimiento de BBK cualquier error o irregularidad que detecten en la gestión de la cuenta por parte de BBK, así como cualquier anotación de transacciones no autorizadas o irregulares. En tal sentido y en beneficio de la seguridad del tráfico mercantil, se obligan a formular dichas objeciones a los extractos de su cuenta valor en el plazo de 20 días naturales desde la recepción del extracto.

El Titular asume asimismo la obligación de cursar, en el razonable plazo que se le señale, las instrucciones pertinentes que se le soliciten relativas a sus títulos, asumiendo que en el caso de no cursar la orden solicitada, BBK actuará a su criterio ejecutando la operación que considere más interesante para el titular, criterio que anticipará, cuando sea posible, en la comunicación al cliente en la que requiera sus instrucciones.

**3) REGIMEN DE TITULARIDAD Y APODERAMIENTOS**

La Cuenta Valor puede ser abierta a nombre de uno o más titulares personas físicas o jurídicas, con suficiente capacidad legal. A la misma solo se podrán incorporar los títulos que correspondan en propiedad a los mismos titulares de la cuenta, no pudiéndose incluir otros de distinto régimen de dominio, aun cuando se trate de valores "al portador".

La Cuenta Valor podrá incluir la figura del usufructuario, caso en el que, además de cumplirse los requisitos antes citados, se exigirá que todos los títulos que se incorporen tengan legalmente establecido el régimen de usufructo en favor de la persona a la que se le reconoce en la cuenta valor.

El Titular, y en su caso necesariamente también el usufructuario, podrán otorgar poderes para autorizar a una o más personas a solicitar información, dar instrucciones sobre la citada cuenta, cursar ordenes de compra y venta, etc. Será preceptivo para la efectividad de dichos poderes, el previo bastanteo de los mismos por BBK por lo que deberán de presentarse, con suficiente antelación, los originales de las escrituras de apoderamiento con expresa indicación de las facultades que pretenden registrarse para la Cuenta Valor.

En caso de cotitularidad indistinta, los titulares se autorizan mutuamente para que cualquiera de ellos, mediante su sola firma, pueda ejercitar, por sí solo, la totalidad de los derechos dimanantes de la Cuenta Valor, incluida la disposición o pignoración de los títulos depositados.

Asimismo los titulares podrán designar una persona con el carácter de administrador con el exclusivo fin de que acceda a la información relativa a la cuenta valor.

**4) DATOS PERSONALES DEL TITULAR**

El Titular, el usufructuario, los apoderados y administradores quedan obligados a notificar a BBK cualquier circunstancia personal, patrimonial o de cualquier otra índole que pueda modificar su situación. Se obligan asimismo a notificar cualquier cambio de domicilio o de dirección postal a efectos de correspondencia, entendiéndose notificadas las comunicaciones remitidas por BBK al último domicilio registrado del Titular.

Los clientes consienten expresamente el tratamiento de los datos de carácter personal facilitados a BBK, titular y responsable del fichero automatizado, quien a su vez se

compromete a realizar todos los procesos protegiendo suficientemente la confidencialidad y adecuado uso de los datos con respeto a la legalidad vigente en cada momento y a los derechos de los afectados de acceso, rectificación y cancelación.

**5) SISTEMAS ALTERNATIVOS DE OPERACIONES**

Aquellos clientes que decidan incorporarse a los nuevos medios de comunicación de operaciones, tales como el servicio telefónico "Telekutxa", terminal a distancia "CajaCash", la tarjeta "Cajacard" y todos aquellos medios que se incorporen en el futuro, podrán, en la medida en que se vayan habilitando estas posibilidades, realizar operaciones relativas a la Cuenta Valor, por nuevos procedimientos, sustituyendo los condicionados de dichos servicios al presente en aquellos puntos en que, por su carácter especial, prevean situaciones o formas que quedan fuera del alcance de este contrato, y permaneciendo en vigor el resto de condiciones aquí expresadas, en cuanto no se opongan a la regulación especial citada.

**6) COMISIONES APLICABLES**

Las comisiones aplicables a esta Cuenta Valor en concepto de depósito y administración, su periodicidad, así como las comisiones aplicables a las operaciones que afectan a la misma (compra, venta, suscripción, amortización, etc) son las que explícitamente se señalan en el anexo que se le entrega al cliente con este contrato. Las comisiones citadas podrán ser alteradas, asumiendo BBK la obligación de comunicar al cliente las modificaciones, indicando el plazo de su entrada en vigor, que no podrá ser inferior a 2 meses desde la fecha de la recepción de la comunicación.

**7) CUENTA VINCULADA**

El abono de amortizaciones y el cargo de suscripciones, compras, comisiones y gastos inherentes a la cuenta valor se realizarán en la cuenta vinculada. En dicha cuenta se abonarán también los dividendos e intereses cuando no se haya señalado una cuenta distinta a tal fin.

En caso de cancelación de la cuenta vinculada, el Titular deberá señalar otra en la que sea factible, de conformidad con el condicionado de la misma la domiciliación de los cargos y abonos señalados.

Las órdenes del cliente, salvo que excepcionalmente se indicara lo contrario, se entenderán dadas respecto a la citada cuenta vinculada, siendo precisa la provisión de fondos suficiente para la atención de aquellas que impliquen adeudo en cuenta. A tal fin, en las ordenes de compra, suscripción o aquellas que impliquen un cargo en cuenta, el Titular da su consentimiento para que BBK, al ejecutar la orden, pueda efectuar una retención de saldo prudencial y adecuada al importe de la operación, con carácter previo a su liquidación definitiva.

**8) COMPENSACION DE SALDOS**

Si como consecuencia de la operaciones originadas por la cuenta valor se produjera descubierto en la cuenta vinculada, BBK queda autorizada para cargar dicha operación en cualquiera de las cuentas que figuren a nombre de uno cualquiera o de todos los titulares de la cuenta valor, o a vender los valores necesarios para hacer frente a dicho importe, así como a reclamar la cantidad adeudada, o la parte de la misma que quede pendiente después de realizar la venta y sus intereses al tipo de interés que tenga establecido para los descubiertos en cuentas corrientes, registrado en el Banco de España y publicado en los tablones de anuncios de todas sus oficinas.

**9) DURACION DE ESTE CONTRATO**

Este contrato se realiza con carácter indefinido, si bien será rescindible por voluntad unilateral de cualquiera de las partes, con obligación de comunicar tal rescisión con una antelación de, al menos, 15 días.

**10) FALLECIMIENTO DE TITULARES**

Al fallecimiento del Titular o de alguno de los titulares, los herederos o los restantes titulares, en cada caso, deberán observar lo dispuesto por las disposiciones legales vigentes en su momento.

**11) MODIFICACION DE CONDICIONES GENERALES**

La modificación de estas condiciones generales podrá ser propuesta por BBK, bien por escrito con una antelación mínima de 15 días, bien mediante la publicación en los tablones de anuncios de las oficinas de la Entidad con una antelación de dos meses, o por los procedimientos legalmente vigentes para tal notificación en el momento de producirse la modificación. La no aceptación de dichas modificaciones dará opción al cliente a la rescisión de este contrato.

**12 ) NORMATIVA LEGAL**

Los contratantes se someten a las prescripciones de la Ley 26/84 de 19 de Julio, general para la Defensa de los Consumidores y Usuarios, e igualmente se someten expresamente a las normas de conducta e información previstos en la legislación del Mercado de Valores y en el Reglamento Interno de Conducta de Bilbao Bizkaia Kutxa en el ámbito del Mercado de Valores (a los efectos del art. 3.3. del R.D. 629/93, de 3 de Mayo sobre Normas de Actuación en los Mercados de Valores y Registros Obligatorios), y en general, a los requisitos que, según las características de la operación de que se trate, se establezcan por el Ministerio de Economía y Hacienda.

**13) SOMETIMIENTO A FUERO**

Los contratantes someten a la competencia exclusiva de los Juzgados y Tribunales de la capital de la provincia en la que se suscriba este contrato cuantas incidencias se deriven de la interpretación y cumplimiento del mismo.

# BALOREEN KONTUAREN KONTRATUKO BALDINTZA OROKORRAK

**1) BALOREEN KONTUAREN IZAERA ETA HELBURUA. BILBAO BIZKAIA KUTXAK BERE GAIN HARTUTAKO EGINBEHARRAK.**

Kontratu honen bidez, "Baloreen Kontua" deritzenetako bat irekitzen du bezeroak, eta balore higigarriak erantsi ahal izango dizkio berari, hala "titulu"zkoak, zelan "kontuetako anotazio"zkoak.

Lehenengoei dagokienez, BBK-k Zaintzapeko Gordailu-zainaren eginkizuna bere gain hartuko du, nahiz eta, gordailu kualitatiboa izango den, balore kotizagarrien likidazio eta konpentsazio sistemari atxikiz tituluen suntsigarritasuna egingarri izan dadinean.

Erantsi diren balore guztietarako, BBK-k administrazio eta zaintza zereginak bere gain hartuko ditu, haiei dagozkien kupoiak, dibidenduak, eskubideak, korrituak eta amortizazioak kobratzeko xedez.

BBK-k informazioa emango du aldizka, eta horretarako, baloreen kontuaren mugimenduen eta egoeraren laburragiriak bidaliko ditu, azken jakinarazpenak aurrekoak baliogabetzen dituelarik. Laburragiriak, baloreen kontua aldatzen duten edozein mugimendu gertatzen denean bidaliko dira, eta gutxienez urtean behin.

BBK-k, orobat, amortizazioaren, trukeen, harpidetzen, dibidenduen, akziodunen batzarren, interesgarritzat jotzen diren egoera berezien eta besteren berri bidaliko du; baita gordailatutako tituluei edo bezeroaren karterari erantsi lekizkiokeenei buruz egoki deritzen beste informazio batzuk ere.

Aipatutako laburragiriak eta informazioa, BBK-k, ohiko helbideratze bidez igorriko ditu; era berean, hala kontratutako dituen bezeroei, beste bide batzuk erraztuko zaizkie (Telekutxa, CajaCash eta gerora gauzatu daitezkeen bide berriak); bezeroak ere, jagon egin beharko ditu beraren tituluetan eragina izan lezaketen gertaera guztiak. BBK-k bere aldetik, baloreen kontuari buruz, eta beronek barne hartzen dituen tituluei buruz, eskatzen zaion informazioa, errazteko konpromezua hartzen du.

BBK-k konpromezua hartzen du, bere zeregina arrazonagarriro exijitu dakiokeen ardura profesionalaz betetzeko, ezinbesteko edo ezusteko kasuetatik eratorritako ez-betetzeen erantzunkizunetatik salbuetsita geratuz.

**2) TITULARRAREN BETEBEHARRAK**

Titularrak eta, kasu bada, gozamendunek, edo beraien administratzaileek, BBKri berehala jakinarazi behar dio, BBK-k berak beraren kontuaren kudeaketan egindako edozein akats edo irregulartasun berak detektatua, bai halaber transakzio baimengabe edo irregularren idaztohar oro ere.

Ildo horretatik, eta merkataritza-trafikoaren segurtasunerako, euren baloreen kontuen laburragiriei buruzko aipatu objekzioak, laburragiria jasoz geroko 20 egutegiko eguneko epearen barruan egin beharko dituzte.

Titularrak bere gain hartzen du halaber, bere tituluei buruz eskatzen zaizkion jarraibide egokiak, adierazten zaion epe arrazonagarrian bideratzeko betebeharra ere, bestela bere gain hartuz, eskaturiko agindua bidali ezean, BBK-k bere erizpidez ihardutea, titularrarentzat egokien deritzan eragiketa betearaziz; erizpide hori ahal duenean aurreratuko dio bezeroari jarraibideak eskatzeko jakinarazpenean.

**3) TITULARTASUNAREN ETA AHALDUNTZEEN ARAUBIDEA.**

Baloreen kontua titular bat edo gehiagoren izenean ireki daiteke, legezko gaitasun nahikodun pertsona fisikoak nahiz juridikoak izanik. Kontuaren titular ber-berenak diren tituluak baino ezin zaizkio erantsi hari, ezin baita bestelako jabari-araubidedunik sartu, nahiz eta "eramalearentzako" baloreak izan.

Baloreen kontuan, gozamenduna ere egon daiteke; kasu horretan, lehen aipaturiko beharkizunez gain, exijituko da ezen, eransten diren titulu guztiek legez ezarrita eduki dezatela gozamen- araubidea, hots, baloreen kontuan sartzea ezagutzen zaion pertsonaren aldekoa.

Titularrak/ek, eta kasu bada gozamendunak ere hala beharko, ahalak eman ditzakete, pertsona bat edo gehiago baimentzeko informazioa eskatu dezan, aipatutako kontuari buruz jarraibideak eman ditzan, erosketa eta salmenta aginduak bideratu ditzan eta abar. Aipatu ahalek eraginkortasun izan dezaten, manuzkoa izango da Bilbao Bizkaia Kutxak aldez aurretik haien askiespena egin dezan, hortaz nahikoa aurretik aurkeztu beharko dira ahalduntze-eskrituren orijinalak, beren-beregi adierazten dutenak baloreen konturako erregistratu asmo diren ahalmenak.

Titulartasun bereizgabea denean, titularrek elkar baimentzen dute, beraietako edozeinek, bere sinaduraren bitartez, bere kabuz erabili ahal ditzan Baloreen Kontuari datxezkion eskubideak oro, gordailatutako tituluak bere nahierara erabiltzea nahiz berauen pignorazioa barne.

Orobat, titularrek norbait izendatu dezakete administratzaile, baloreen kontuari buruzko informazioa eskuratu dezan helburuaz, ez beste.

**4) TITULARRAREN JAKINGARRI PERTSONALAK**

Titularrak, gozamendunak, ahaldunek eta administratzaileek BBKri edozein gorabehera pertsonal jakinarazi behar dio, hala ondareari buruzkoa, zelan beraren egoera aldarazi dezakeen beste edozein motatakoari buruzkoa. Orobat, postabide-ondorioetarako, egoitza edo posta-helbidean izan duen edozein aldaketa jakinarazteko betebeharra du, jakinarazitzat joko direlarik BBK-k titularraren azken egoitza erregistratura igorritako jakinarazpenak.

Bezeroak beren-beregi ematen du, BBKri jakinarazi dizkion datu pertsonalak tratatzeko baimena, eta BBK bera ere, haien destinoa izango diren fitxategi automatizatuaren titular eta arduraduna izanik, konprometatzen da, aipatu prozesu guztiak, ixilmandatasuna eta datuen erabilera behar bezala babeztuz egitera, une bakoitzean indarrean dagoen legezkotasuna eta ukiturikoek dituzten sarbide, zuzentze eta ezerezte eskubideak betez.

**5) ERAGIKETEN SISTEMA ALTERNATIBOAK**

"Telekutxa" zerbitzua, "Cajacash" distantziazko terminala, "Cajacard" txartela bezalako bitartekoketa-tresna berrietara eta etorkizunean erantsiko zaizkien bitarteko guztietara eranstea erabakitzen duten bezeroek, eta ahalbide hauek gaitzen diren ahala, Baloreen kontuarekiko eragiketak egin ahal izango

# BALOREEN KONTUAREN KONTRATUKO BALDINTZA OROKORRAK

dituzte prozedura berriez, zerbitzu horien baldintzategiak honako hauek ordeztuz halako puntuetan non, beraien izaera bereziagatik, kontratu honen irispidetik kanpo geratzen diren era edo egoerak aurrikusi ditzaten, aldi berean indarrean iraungo dutelarik hemen adierazitako gainerako baldintzek, aipatu erregulazio bereziaren aurka ez doazenean, alegia.

**6) KOMISIO APLIKAGARRIAK**

Baloreen kontu honi eratxeki dakizkiokeen komisio edo honenbestekoak, kontratu honetxekin batera bezeroari ematen zaion eranskinean espresuki adierazten direnak dira. Eroste, saltze, harpidetza eta amortizazio eragiketak eta baloreen kontu honen edukian eragina izan dezaketen beste eragiketa batzuk bakoitza bere komisioei atxikita egongo dira. Aipatutako komisioak aldatu egin daitezke. BBK-k bezeroari aldaketen berri emateko ardura bere gain hartzen du, indarrean noiz egongo diren adieraziz. Data hau, komunikazioa hartutako egunetik bi hilabetekoa gutxienez izango da.

**7) KONTU LOTETSIA**

Baloreen kontu honen kontratatzaileak konpromezu hartzen du Bilbao Bizkaia Kutxan hari lotetsiriko beste kontu bat edukitzeko, kontu korrontea, aurrezki-kontua nahiz, bere baldintzen arabera amortizazioen abonua eta harpidetzen, erosketen, komisioen eta balore-kontuari dagozkion gastuen zordunketa jaso ahal dituen beste edozein motatakoa izan beharko duena, hain zuzen. Kontu horretan dibidenduak eta interesak ere abonatuko dira, horretarako bereziki beste konturen bat adierazi ez denean.

Lotetsitako kontuaren kitapena gertatuz gero, titularrak beste bat adieraziko du. Kontu horretan posible izango da bere baldintzen arabera, aipatutako karguak eta abonuak helbideratzea.

Bezeroaren aginduak, salbuespen gisa bestelakorik adierazi ezean, emandakotzat joko dira aipatu kontu elkarteari dagokionez, eta beharrezko izango da fondo-hornidura nahikoa egitea, kontuan zorduntzea datxekienei erantzun ahal izateko. Horretarako, erosketen, harpidetzen edo kontuan zorduntzea dakartenen aginduetan, bezeroak bere baimena ematen du, BBK-k saldo atxikipen zentzuzko eta eragiketaren zenbatekoarekin egokia egin ahal dezan, harik eta hura benetan gauzatu arte.

**8) SALDOEN KONPENTSAZIOA**

Baloreen kontuan egindako eragiketaren ondorioz zorpekoa gertatzen bada, BBK-k ahalmena izango du, haietako edozein saldo zorduna beste kontuetako hartzekodunekin erregularizatzeko edo amortizatzeko , BBK-k era berean du, zordunaren fondoak edo baloreak atxikitzeko ahalmena, harik eta zorra erabat kitatu arte, sortarazi dituen korritu eta gastuak barne. Ahalmen hau, baloreen kontuak sortarazitako eragiketen ondorioz gertaturiko zorpekoak erregularizatzearren saldu behar diren tituluetara hedatzen da. Korritu-tasa, kontu korronteetarako ezarritakoa izango da, Españako Bankuan erregistratuta dagoena eta bere bulego guztietako iragarki-oholetan argitaratzen da.

**9) KONTRATU HONEN IRAUPENA**

Kontratua denborazko mugarik gabe egiten da, nahiz eta alde baten borondate aldebakarrekoz hutsaldu daitekeen, hutsalketa horren berri gutxienez 15 eguneko aurretiaz jakinarazteko betebeharrarekin.

**10) TITULARREN HERIOTZEA**

Titularraren edo titularretariko baten heriotzea izan bada, jaraunsleak edo gainerako titularrak, kasuan kasu, bere garaian indarrean zeuden lege-xedapenek xedatutakoari atxikiko zaizkio.

**11) BALDINTZA OROKORREN ALDARAZPENA**

Kontratu honetako baldintzak, aldarazi egin ditzake BBK-k, eta kasu horretan baldintza berriak jakinarazi beharko dizkie kontratatzaileei, dela idatziz, 15 eguneko aurretiaz, dela Etxe honen bulegoetako iragarki-oholetan argitaratuz, hilabete biko aurretiaz, edo bestela, aldarazpena gertatzen den unean jakinarazpen horretarako legez indarrean dauden prozeduren bitartez. Aldaketak onartzen ez baditu, bezeroak, ezeztatzeko aukera izango du.

**12) LEGEZKO ARAUTEGIA**

Kontratugileak, ondoko arauen menpe geratzen dira:

1- Kontsumatzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako, uztailaren 19ko, 26/84 legea

2- Merkatuko Baloreen legeriako jokaera eta informazio arauak

3- Merkatuko Baloreen eremuko, Bilbao Bizkaia Kutxako barruko araudiko jokaera eta informazio arauak. (Derrigorrezko Erregistro eta Baloreen Merkatuetako, Jokabide Arauetako, maiatzaren 3ko, EDko 629/93, 3.3. artikuluari dagokionez)

4- Eta orokorrean, eragiketaren ezaugarrien arabera, Ogasun eta Ekonomia Ministeritzak ezarritako betekizunak.

**13) FORUAREKIKO MENPEKOTASUNA**

Kontratatzaileek probintziako hiriburuko Epaitegi eta Auzitegien eskumen esklusiboaren menpe uzten dituzte, kontratu honen interpretaziotik eta betetzetik eratorri daitezkeen gorabehera guztiak.